



Euskadiko Jarraipen Batzordea, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

Batzordearen 4. bilkura (2023.09.12) – Idatzizko prozedura

AKTA

Jarraipen Batzordearen barne-araudiaren 9. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta Batzordeko lehendakariaren erabakiz, 2023ko irailaren 12an, Euskadiko Jarraipen Batzordearen deialdi bat ireki zen, idatzizko prozeduraren modalitatean, Batzordeko kide guztiei 17:53tan bidalitako posta elektronikoaren bidez.

Batzordearen idatzizko prozedura horren helburua zen FEADER interbentzioen hautaketa-irizpideei buruzko dokumentuaren bertsio berri bat onartzea (dokumentuaren 3.0 bertsioa, Batzordeko kideei irailaren 12ko mezu elektroniko berean aurkeztua). Proposatutako bertsio berri horretan, zehazki, 7119 - LEADER Interbentzioaren hautaketa-irizpideak sartu ziren, hain zuzen ere Partaidetzazko Tokiko Garapeneko Estrategien (PTGE) baitan laguntzen diren proiektuen irizpideak, lehenago onartutako bertsioan proiektu mota horiek hautatzeko irizpideak definitu gabe geratu baitziren, momentu horretan amaitu gabe zegoelako Tokiko Ekintza Taldeen eta PTGEen aukeraketa prozesua. Bestalde, 6872 interbentzioan (Inbertsioak landa eremuetako oinarritzko zerbitzuetan) ere zuzenketa bat barneratzen zen.

Proposamen horri buruzko oharrak egiteko epeari dagokionez, alegazioak aurkezteko azken eguna irailaren 26 ezarri zen.

Ezarritako epearen barruan, Europako Batzordeak egindako ohar orokor batzuetaz gain, alegazioak aurkeztu ziren Garapen Ekonomiko, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Berdintasun Unitatearen aldetik, hain zuzen ere “Enpleguaren sorrera” irizpideari dagokionez. Kudeaketa Agintaritzak alegazio hauek egokitzat hartu zituen, dokumentuaren bertsioa berri bat sortu zen (3.1 bertsioa), eta honenbestez Idazkaritzak, irailaren 27an, aldeko irizpena bidali zien Batzordeko kideei, hautaketa-irizpideen dokumentuaren 3.1 bertsioari dagokionez, eta jasotako alegazioak eta Kudeaketa Agintearen erabakiak bertan erantsi zituen.

Euskadiko Jarraipen Batzordeko Idazkaritza, PEPAC 2023-2027 programaren baitan

Sinatuta. Inaxio Alguacil Barrenetxea

Gasteiz, 2023ko irailak 27